

BEGOÑA IBARROLA



ILUSTRAZIOAK SANTIAGO AGUADO

ARGIA TEILATUPEAN

desclée



BEGOÑA IBARROLA

ARGIA TEILATUPEAN

Ilustrazioak: Santiago Aguado

Itzulpena: Miren Agur Meabe

desclée



Goiz hartan, Adela binaka
igo zituen etxeko eskailera-
mailak, goraino. Handik
ez ziren entzuten neba txikiaren
negarrak, ezta neba nagusiaren
oihuak ere, aitarekin liskarrean.

Bazter batean kukutu zen, aurrean
zeukan ateari begira-begira, beste
aldean mundu guztiz desberdin bat
zegoenik jakin gabe.


—Zertan zaude hor? —galdetu zion ahots
ezezagun batek, atea zabalduta.

—Lasai egon nahi dut pixka batean, besterik ez —erantzun zuen
Adela.

—Sartu barrura, nahi baduzu —gonbidatu zuen andreak—. Nire
etxea lasaia da. Platon nire katua eta biok bakarrik bizi gara.








Sartu eta batera, Adela harrituta geratu zen hain toki argitsua ikusita. Argia leiho handietatik eta sabai-leiho batetik sartzen zen.

—Hau argitasuna! Gure etxean beti edukitzen ditugu gortinak botata, argiak amari buruko mina ematen dio eta.

—Kontxo! Pena da amak buruko mina izatea, oso gogaikarria da hori. Niri ez zait gertatzen, eta eskerrak!

Adela ohartu zen gela hura koadroz beterik zegoela, batzuk horman jarrita eta beste batzuk hormaren kontra pilatuta. Sukaldea eta beste ate bat ere ikusi zituen, agian andrearen logelakoa edo bainugelakoa. Hala ere, kaballete baten ondotik pasatzean, atentzioa eman zion bukatu gabe zegoen koadro batek.



—Nire azken lana. Gustatzen al zaizu? Ezin bukatuta nabil.

o Adela koadrora hurbildu zen eta arretaz aztertu zuen paisaia
o ilun hura, kontrastea egiten baitzuen toki argitsu hartan.

o —Bai —erantzun zuen—, baina nahiko tristea da, ez? Non dago
o toki hori?

—Nire memorian —azaldu zion andreak—. Txikitan paisaia hori
ikusten nuen nire logelatik. Landan bizi nintzen gurasoekin,
orain dela urte asko, noski.

Andrea jiratu egin zen, eta eskua luzatu zion neskatxoari:

—Ez dizut nire izena esan. Nora naiz.

—Ni Adela —esan zion berak, andreari eskua kontuz
estututa—. Pintorea al zara?

—Bai. Ikusten duzunez, pazientziaren arte sakratuari emana
bizi naiz.

—Pazientziaren artea? —Adelak ez zituen hitz haiek ulertu.

—Jakina, pintatzea begiratzeko ikastea da. Eta horretarako,
pazientzia handia behar da. Barrutik zerbait ateratzeko, lasai
egon beharra dago.

